

# OSO LETUS



LOKARTURIKO BORROKENTZAKO KOMEDIA

Anodino  
Teatroa

AIORA SEDANO  
AITOR FERNANDINO  
JUANJO OTERO

Zuzendaritza  
PAKO REVUELTAS



**LOKARTURIKO GANDHI-AK ETA  
USTEZKO TERRORISTEI BURUZKO KOMEDIA**

**FORMATOA** Areto ikuskizuna

**HIZKUNTZA** Euskara

**IRAUPENA** 75 minutu

**PUBLIKOA** Gazte-Heldua

**ESTRENALDIA**

**2023-ko apirilak 28an estrenatutakoa,  
Getxoko Muxikebarri Zentroan.**

**SINOPSISIA**

Lantegiaren ixtearekin sortutako protesta jendetsua, denborarekin guztiz ahulduta dago, Ione eta Elias bakarrik geratzen direlarik. Baina Txarlik itxaropena dakar, hitzemateak lortu ditu, baldintza bakar batekin: Itxialdia berehala utzi behar dute.

Gaur egungo gizartean badu zentzurik borrokak edo zaharkitua geratu al da?  
Agian aldarrikapenak izatea da obsoleto dagoena?  
Lokarturiko Gandhi-ak eta ustezko terroristei buruzko komedia bat.

OBSOLETUS antzezlanaren teaserra [HEMEN](#)

# ZERGATIK BORROKARI BURUZ HITZ EGITEA?

## Zaharkituak, definizioa:

*gaur egun erabiltzen ez dena, argi eta garbi antigoaleko geratu dena.*

Obsoleto hitza, zaharkitua euskaltzaindiako definizioan, azken 10-15 urteko hitz garrantzitsuenetarikoa bilakatu dela esan dezakegu. Normalean etxetresna elektrikoentzako erabili ohi izan da

Hitz hau, obsoletoa, gatazka sozialak definitzeko erabiltzen da nahiz eta gatazka sozialak berdinak izanten jarraitzen duten. Baina gatazka sozial hauei aurre egiteko moduak aldatu dira. Gaur egun, zero biolentziaren gizartean, araudi horietatik irteten denak biolentoaren etiketa jaso dezake eta handik gutxira terrorista bat izatearen marka.



Azkeneko gatazkei begirada azkar bat besterik ez dugu egin behar konturatzeko hedabideek, erantzule politikoek eta gatazkan erlazionatutako taldeek berehala erabiltzen dutela hitz hori, biolentzia, edozein gizarte mugimendu estigmatizatuz.

Gizartea ere, orokortze honen biktima izan da eta aldarrikapenak deuseztatzen ditu kaleratzen direnean, gatazka honen balantza zeharo desorekatuz.

Gure antzezlanean langile gatazka batean jartzen dugu ardatza eta botere galtze horretan. Langileak zaharkitutak daude, aurrez galdutako partida bat jokatzeko ari dira. Agian

moduak ez daude zaharkitutak.

Agian zaharkituta dagoena aldarrikapenak izatea besterik ez da.

## TRATAMENDU DRAMATURGIKOA

OBSOLETUS antzezlanak **komedia politiko** baten arima du, komediarako idatzita eta taularatzeko momentuan ere bide hori jarraituko duena.

Taula gainean aurkitzen dugun egoera bi pertsonai desesperatuen egoera da, autoinposaturiko ixilezko kartzela batean daude eta horrek **egoera burugabeak** sortzen ditu.

Hemen dugu komediarako lehenengo elementua.

Bigarren elementua **gezurra** da; Eliasek, Ionek eta Txarlik gezurrekin jokatu dute protesta bizirik eusteko, hortaz haien arteko erlazioa txantxa bat besterik ez da. Gezurak mantendu ezin direnean eta, ondorioz, argitarazten direnean, sortzen dituzten egoerak, eta ezinegonak komediarako lagungarriak dira.



Halaber, politikoa dela esan dezakegu, ideologia zehatz bat erakusteko grina bait du. Kanpoko egoerak behartuta **auto-zentsura** muturrera eramán dute eta kale itsu batean aurkitzen dira, atzera bueltatu ezinik. Protestara bueltatzeko modu bakarra egin duten guztia deuseztatzea da. Eta hori da pertsonaiek jarraituko duten bidea: **Gezurrez eraikitako protesta** suntzitzea, bide berri bat hasteko.

OBSOLETUS antzezlaná benetako denbora batean gertatzen da. Hau da,

antzezlanak irauten duen denbora hori, 75 minutu, pertsonaiek bizitzen duten denbora berbera da eta erritmo handiko antzezlan da, premia handikoa, komediarako laguntzen duenak.

Bukatzeko, obra honen erritmoa progresiboa da. Ione eta Elias lehenengo aldiz agertzen direnean gelditasun tentsio bat dago, bi pertsonaiek esan nahi dituzten hitzak gordetzen dituzte. Baina pixkanaka pixkanaka, eta batez ere Txarliren agerpenarekin, gezur



guztiak azalaratzen hasten dira, eta ondorioz tentsio hori askatzen da, azkeneko partean erritmoa bizituz. Antzezlanaren bukaeran gatazka kanpoaldera eramaten da, hau da, komunikabideek, poliziak eta Geo-ek kanpotik presionatzen dutelarik, hiru pertsonaien konfliktua bere puntu gorenera iritsiko da.

### **Jasotako kritika: Berrian, 2023ko maiatzaren 3an**

“Aktoreek ondo defenditzen dute euren rola; erritmoari ondo eusten dio *Obsoletus*-ek.”

“...era simple bezain argian eta efikazean garatuta dago *Obsoletus*-en argumentua.”

“...gonbidatu gazteak antzokira, eta, historiaren itzalean, egin solasaldia *Obsoletus* komediaren istorioari buruz. Gogoratzeaz gain, eztabaidatzen hasi, ea akordiorik lortzen duzuen.”

*Arantzazu Fernandez Iglesias*

**Kritika osoa irakurtzeko klikatu [HEMEN](#)**



# TALDE ARTISTIKOA

## AKTOREAK

### Aiora Sedano García




12 urterekin Bonbolinak izeneko talde amateurrean hasi zen eta 2003an aktore onenari Electra saria irabazi zuen.

BAI (Bizkaiko Antzerki Ikastegia) eskolan ikasi zuen interpretazioa 2000-2004 urte bitartean eta bukatu aurretik Kukubiltxo antzerki taldean hasi zen lanean.

Geroztik ikasten jarraitu du antzerkia, zinema, musika eta dantza bezalako diziplinatan. Hainbat konpainiatan egin du lan: ATX teatroa, Marie de Jongh, Benetan Be, Pabellón 6, Teatro Arriaga, Hortzmuga, Anodino Teatroa, Plataforma Tirante, Glu glu...

Azken 5 urteotan ahotsa jarri du hainbat proiektutan, euskaraz zein gazteleraz, iragarki eta dokumentalenzako eta ikusentzunekeo formatoan hainbat paper.

### Aitor Fernandino Hernández



Getxoko Antzerki Eskolan diplomatuta 2003. urtean. Geroztik Euskal Herriko antzerki talde ezberdinekin lan egin du, . Hala nola, Ados Teatroa, Porpol Teatro, Deabru Beltzak edo Txalo . Catalunyiako La Baldufa taldean eta Erre- Maskaradaren ekoizpenetan ere lan egin du azken urteotan.

Zineman eta telebistan ere trebatuta, EITB-ko **Ihesaldia** teleaiaian parte hartu du eta **80 egunean** (Moriarti) edo **El asesino de los caprichos** (Gerardo Herrero) filmetan besteak beste.

2014. urtean **Anodino Teatroa** sortzen du beste kideekin batera eta lan ezberdinetan parte hartzen du aktore eta zuzendari bezela.

2015. urtean aktore onenaren saria lortu zuen P6-ren Antzerki Arina Jardunaldietan.

## Juanjo Otero



Arte Dramatikoaren lizentziatura atera zuen 1999an, eta geroztik beti egon izan da antzerkiaren alderdirik esperimentalenaekin eta hizkuntza garaikideenekin lotuta. Bilboko La Chusma T konpainiaren sortzaileetako bat da. Haren Kartoibiraka ikuskizunak MAX saria irabazi zuen 2001ean.

Eszenako egile eta zuzendari honek bere ekoizpen-etxe propioa sortu zuen, Kultura Ministerioaren eta Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza batekin.

Arte-zentroetako artista plastiko eta ikus-entzunezkoekin batera esperientzia eszenikoetan parte hartu du eta antzerki-ekoizpen eta lirika-emanaldi handietan ere aritu izan da, besteak beste opera eta zarzueletan. Azken urteetan Madrilgo sala mitiko baten zuzendaritza artistikoaz eta programazioaz arduratzen da.

## ZUZENDARIA

### Pako Revueltas



Arte Dramatikoa diplomaturatua da eta hainbat interpretazio-teknikatan trebatu da: metodoa, keinuzko antzerki fisikoa, maskara neutroa edo clowna, kasu. Azken hogeitun urteetan antzerkian aktore- eta zuzendari-lanak egin ditu, eta hainbat film eta telesailetan ere ikusi ahal izan dugu.

Urteotan, formatu oso ezberdineko ikuskizunak zuzendu ditu. Sorkuntzarik berrien artean nabarmentzekoak dira Calla y Come (La Cocina), Barbecho (Cia. Natxo Montero), Salto (Metrokoadroka), Kale Gorrian eta Legea Gu Gara (Cia. Barsanti), Una Casa de Muñecas (Arriaga Antzokia) edo azkenaldian La Maniobra Heimlich eta Maskotak (Mama Crea).

Bere partaidetza izan duten ikuskizunak jaso dituzten sarien artean daude: Ikuskizunik onena Tárrega, Villarreal, Valladolid eta Leioako jaialdietan 2003 (DSO); CICAIE saria 2009ko Berninalen (Ander); Huescako Nazioarteko Azokako antzerki- ikuskizun onenaren saria eta MAX sarietarako finalista 2010ean (Calla y Come), MAX sarietan finalistak 2020-an (KALE GORRIAN)





# Anodino Teatroa

## Definizioa

1. Sustantibakoa, garrantzirik gabekoa.
2. **Mina arindu edo kentzen duena.**

Aitor Fernandino, Iosu Florentino Badiola eta Aiora Sedano aktore eta sortzaileek, hainbat urtetan konpainia ezberdinetan lan egin eta gero, 2016an, gure bideak elkartu genituen **Anodino Teatroa** sortzeko asmo argi batekin: **euskarazko antzerki komedia egitea.**

Lehenengo eta behin **Zerura Eroria** aretoko ikuskizuna estreinatu genuen Pablo Ibarluzearen zuzendaritzapean eta kritika onek bide horretan jarraitzera animatu gintuen. Urte horretan bertan **Malda ta Zorrotz** haurrentzako antzezlan laburra estreinatu genuen. (Aitor Fernandinoren zuzendaritzapean eta Maite Fombellida eta Aiora Sedano aktore lanetan).

2017an **Erbeste, saihets baten aldarrikapena** estrenatu genuen Donostiako Poltsiko Antzerkia saria irabazi eta gero.( Getari Etxegarai eta Aitor Fernandino aktore lanetan).

Urte berean **Schrodinger-en katua** antzezlan laburra estrenatu genuen, (Mikel Losada eta Aitor Fernandino aktoreek taularatura). Alex Angulo sormen onenari saria irabazi genuen Pabilioi 6ko Antzerki Arina jardunaldietan.

2019an **ZOM2** antzezlan laburra, Patricia Urrutia eta Aitor Fernandinorekin.

Azken urte honetan Café Bar Bilbao saria irabazitako Mikel Fernandinoren **Deus ex Twingo** antzezlan labur dibertigarria taularatu genuen Aiora Sedano eta Aitor Fernandino aktoreek.

**OBSOLETUS** gure lan berria da . Aitor Fernandinok idatzitako testua da “Antzerkigintza berriak” izeneko programan parte hartu duena eta Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzaren babesa duena.

# FITXA ARTISTIKOA

**Aktoreak:** Aiora Sedano, Juanjo Otero eta Aitor Fernandino

**Zuzendaria:** Pako Revueltas

**Testua:** Aitor Fernandino

**Eszenografia eta atrezzoak:** Atx Teatroa

**Argiztapen diseinua:** Javier Garcia (Kandela)

**Soinu espazioa:** Ruben G. Mateos

**Argazkiak:** Lucía Sáiz Bález

**Bideoa:** Iñigo Cobo

**Eskerrik asko:** Naia Muñoz Murua, Jemima Cano, Gorka Minguez, Nerea Lorente Usabiaga, Galder Perez, Ane Zabala, Juli Cabanillas, Sedano García ahizpak eta modu batean edo bestean gure ondoan, parean eta aldamenean dauden pertsona zoragarri guzti horiei.

## EKOIZPENA ETA BANAKETA



Tlf: 677 24 14 14 (Aitor) /

657 724 552 (Aiora)

[info@anodinodeatroa.com](mailto:info@anodinodeatroa.com)

[anodinodeatroa.com](http://anodinodeatroa.com)

## LAGUNTZAILEAK

